



zure herria, zure denda(k)
La Campana
tu pueblo, tu comercio

LA CAMPANA MERKATARITZA, ZERBITZU ETA OSTALARITZAKO ELKARTEA

Izena emateko eta lanak bidaltzeko data: 2014ko ekainak 2tik ekainak 30 era.

DESKRIPZIOA

Diseinu lehiaketarako deialdia egiten da, La Campana Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzu elkarte irudikatuko duen logotipoa aukeratzeko.

LEHIAKETAREN OINARRIAK

1.- GAIA: Gure elkartearen helburuei eta ezaugarriei lotuta egon beharko du. Logoaren orijinaltasuna eta sintesia baloratuko dira, baita ohiko, hurbileko eta tokiko (Burlata eta Atarrabia) merkataritza esparruarekiko lotura ere. Logotipoa **EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ egonen da**, irakurtzeko moduan idatzia. Logotipoa orijinala eta berria izanen da, eta ezin izanen dira aurkeztu beste lehiaketa batean saririk jaso duten lanak.

2.- PARTE-HARTZAILEAK: Nahi duten pertsona guztiak aurkezten ahalko dira txapelketara. Sariduna adingabea bada, saria legezko tutoreei emanen zaio.

3.- FORMATUA ETA TEKNIKA: Lanak formatu digitalean auzetuko dira: JPG, TIFF, PDF, zuri-beltzean eta koloretan. Honako helbide honetara bidali beharko dira: j.martinez@comercionavarra.com. Parte-hartzaile bakoitzak logotipoaren 2 proposamen aurkezten ahalko ditu.

4.-AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA: Aurkezteko mugaeguna: **2014ko ekainak 30a izanen da**. Lan bakoitzak 2 proposamen izaten ahalko ditu gehienez, **ekainak 30^a** baino lehen aurkeztu beharko da posta elektronikoko bidez. Han izen-abizenak, harremanetarako telefono bat eta goitizen bat jarri beharko dira. Hona bidali beharko da: j.martinez@comercionavarra.com. Mezu elektronikoa ezin izanen da 3 Mb-koa baino handiagoa izan.

5.-EPAIMAHAIA: 5- EPAIMAHAIA: Epaimahai- herrikoia, bozketa hiru bide desberdinen bidez posiblea izanik: La Campana Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzu Elkartearen Facebook profilaren bidez, kide-tutako dendetan bertan bozka emanez edo El Palacete Jauregia eta Atarrabiako Kultur Etxean. Hamar lan baino gehiago aurkeztuz gero, La Campana-ko batzordeak eta Nafarroako Merkataritza Federazioko tekniko batek, 4 lanik onenen artean aukeratzeko dute irabazlea.

6.-SARIA: Logotipoaren lehiaketan izena eman duten pertsona guztiak eskubidea izanen dute lana jaso dela erantzuna izateko eta **2014ko ekainak 21ean** sariaren ebazpenaren berri izateko. Aukeratzeko lanak **200 euroko (berrehun euro)** saria jasoko du, La Campana Merkataritza, Zerbitzu eta Ostalaritza elkartearen saltoki kide-tutetan kontsumitzeko txarteletan emana. Aukeratzeko logotipoa La Campana Merkataritza, Zerbitzu eta Ostalaritza Elkartearen jabetza izanen da betiko, eta elkarteak nahi duen moduan erreproduzitu eta erabili ahalko du, obraren egileari inolako ordainketarik edo kontraprestaziorik eman gabe. Egileak formatu bektorialean eman beharko du logotipoa (Freehand, Illustrator, etc).

OINARRIAK ONARTZEA: Lehiaketa honetara aurkezteko oinarrien puntu guztiak onartu behar dira nahitaez.

Aukeratzeko lanaren jabetza intelektuala egilearena izanen da. Halere, egileak, La Campana Merkataritza, Zerbitzu eta Ostalaritza Elkarteari eskubide guztiak emanen dizkio betiko, logotipoa edozein prozeduraren bidez argitaratzeko eta zabaltzeko. Izan ere, handik aurrera elkartearen logotipoaren diseinorekin jabea izanen da. , La Campana Merkataritza, Zerbitzu eta Ostalaritza Elkarteak lehiaketa hutsik uzteko eskubidea izanen du.